



Martxoak 8

Feminismoaren definizioa: “Emakume eta gizonen arteko eskubide berdintasunaren printzipioa”.



Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

SUBVENCIONA INSTITUTO NAVARRO PARA LA IGUALDAD
NAFARROAKO BERTINTASUN INSTITUTUAK LAGUNDUTA

MARTXOAK 8 EZ ZORIONDU

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, OSPATZEKO eguna da.

Ez dugu emakume izatearen funtsa ospatzen.

Ez ditugu emakumeak "zoriondu" nahi ederrak, goxoak, maitekorrak, esanekoak, jasankorrek, borrokalariak, ama onak, emazte onak edo alaba onak izateagatik.

Emakumeen Nazioarteko Eguna, New Yorkeko fabrika bateko sutean hildako 140 emakume langileak gogoratzeko ospatzen da. Gertakari honek, emakume langileen eskubideak nazioarteko agendan sartu zituen.

Egun hau, herrialde bakoitzean, estatu bakoitzean, herri eta hiri bakoitzean emakumeek duten egoera eta kokapena ebaluatzeko data da. Estatuari, emakumeen giza eskubideen nazioarteko konpromisoak bete ditzan eskatzeko eguna da, egindako aurrerapausoen, lorpenen eta baita atzerapausoen zein erronken inguruan kontuak eskatzeko eguna.

EZ ZAITEZELA MARTXOAREN 8AN EMAKUMEEI ZORION MEZUAK BIDALTZEKO ARINKERIA-RI BATU. HORREK, GOBERNUEK HITZ EGIN, JAKINARAZI EDO KONTUAK EMAN NAHI EZ DITUZTEN MILIOIKA EMAKUMEON DESBERDINTASUNAK IZKUTATZEN DITU.

EZ ZAITEZELA HORREN KONPLIZEA IZAN.

MARTXOAREN 8 HONETAN EMAKUMEEN GIZA ESKUBIDEAK ZABALDU ITZAZU, EZTABAI-DATU, EMAKUME ETA FEMINISTEN MUGIMENDUAK BABESTU.



ZINEMA – TOKIA: IZKUE – DATA: OSTEKUNA MARTXOAK 7
ORDUA: 19:30 – XX MENDEKO EMAKUMEAK



70.hamarkadaren bukaeran, Kalifornian, hiru emakumek maitasuna eta askatasuna esploratuko dituzte eta aldi berean, nerabe batek helduarorako pausua biziko du, berau betirako markatuko duten emakume hauen, bere amaren eta bi lagunen babesean. 1979.urtea da. Santa Barbaran, Dorothea Fields (Annette Bening) energia askoko emakume ezkongabea da eta bere kezkarik handiena, Jaime (Lucas Jade Zumann) 15 urteko semearen hezkuntza izango da, altxamendu eta aldaketa kulturalen sasoi betean. Bere semea kontrolatzeko ezintasunen aurrean, Dorotheak bi emakume gazteren laguntza eskatuko du: Abbie (Greta Gerwig), Fields familiaren etxean gonbidatu gisara bizi den izpiritu askeko artista punkia eta Julie (Elle Fanning), auzokide azkarra eta probokatzailea.



Iraultza feminista izango da, ala ez da iraultza izango

EMAKUME GUZTIAK, GURE ESKUBIDEEN BORROKA EGUN
HONETARAKO IRAGARRITAKO JARDUERA GUZTIETAN PARTE
HARTZERA GONBIDATZEN DITUGU.



"ARRARO NAGO" ANTZERKIA



TOKIA: ORORBIAKO KONTZEJUA
DATA: LARUNBATA, MARTXOAK 9
ORDUA: 19:30

SINOPSIS

Komedia fresko eta lotsa-gabea, gure eguneroko drama txikien alderik zentzugabe eta komikoenaren bitartez errealitatea barrengarri azalduko duena. Irrati lehiaketa zoro batean gurutzatuko diren 7 sketch izango dira.



IGANDEA, MARTXOAK 10:
ARAZURITIK ORORBIARA MARTXA



Irteera 12:30ean Arazuriko frontoitik.
Arropa eroso eta lila kolorekoa eraman.
Ibilaldiaren ostean Ororbiako Javier
Hostalean lunch bat eskainiko da.

